



LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1. Egitasmoaren izenburua:

AIAKO INTERPRETAZIO ZENTROA ERAIKITZEA

2. Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2022

3. Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailtzarako laguntzak.
- ☐ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☒ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. Proiektuaren helburua:

Ataungo Aia auzoari buruzko interpretazio-zentroa eraikitzea: Erroipe. Bertaratzen direnek auzoa hobetu ezagutzeko aukera izango dute, hala nola Aiako baserrien historia, toponimia, lanbideak, ohiturak, elikadura, fauna, flora... eta askoz gehiago dago bertan ikusgai eta entzungai.

5. Inbertsio totala: 24.456,35 euro

6. Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 11.235,86 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7. Onuraduna:

ATAUNGO UDALA

- ☒ Publikoa
- ☐ Pribatua

8. Lankide edo entitate partehartzaileak:

Ataungo Udala.

9. Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Ataun, Gipuzkoa.

10. Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Aralar natura-parkearen azpian dagoen auzo honen bizimodua ezagutzeko aukera ematen du interpretazio zentroak, baserrien toponimia, ohiturak, natura, lanbideak eta historian zehar bildutako hainbat kontakizunen bidez.

Auzotarrek duela 30-35 urte biltzen hasitako bideoak eta edukiak daude ikusgai, eta espazioa nahiz bisitaldia esperientzia berezi egin duena zera da, Aiako bizilagun bat dela interpretazio-zentroaren gidaria. Gainera bertako material askoren egilea edo biltzailea ere bada; beraz, lehen eskutik kontatzen ditu ikusgai dauden altxorren bitxikeriak.

Laburbiduz, modu integralean bildu da auzoaren ondarea, historia eta natura. Edukiak euskarri fisikoan biltzeaz gain, 3 liburuxka argitaratu dituzte, modu birtualean eta QR bidez hainbat bideo labur eta informazio gehigarri jaso daiteke. Azkenekoz, bisitariak ibilbideak egitera animatzen dituzte auzoaren inguruan, ibilbide hauek gorde eta ondorengoentzat ikusgai uzten dira.

11. Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Udalerrian eta bereziki auzoan izan du eragina proiektuak, urte luzez bildutako ondarea ezagutzeko espazio txukun eta goxo bat sortu delako.

Gainera, eskualdeko turismo eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatu du.